

## BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

552

*EBAZPENA, 2023ko abenduaren 21ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, zeinaren bidez ematen eta ukatzen baitira landare-kontserben enpresentzako laguntzak, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren babesean. Agindu horren bidez, Ukraina inbaditzearen ondoriozko testuinguru ekonomikoak asko eragiten dien elikagai-kateko sektoreentzako ezohiko laguntzen deialdia egiten da 2023. urterako.*

Ikusi dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren IV. kapituluaren babesean aurkeztutako laguntza-eskaerak, agindu horren bidez 2023ko ezohiko laguntzen deialdia egiten baita Ukrainako inbasioaren ondoriozko testuinguru ekonomikoak asko eragiten dien elikadura-kateko sektoreentzat. Horrez gain, eskaera horiekin batera aurkeztutako dokumentazioa ere aztertu da.

Kontuan hartu da Balorazio Batzordeak egindako ebazpen-proposamena. Batzorde hori deialdi-aginduaren 8. oinarria aplikatuta eratu eta Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariaren 2023ko azaroaren 17ko Ebazpenaren bidez izendatu zen.

Balorazio Batzordeak ebazpen-proposamena egiteko, kontuan hartu dira Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduan ezarritako onargarritasun-irizpideak.

Aurretik azaldutakoa aintzat hartuta, honako hau

### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen eranskinean zerrendatutako eskatzaileei landare-kontserben enpresentzako laguntzak ematea. Laguntza horiek Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko uztailaren 26ko Aginduaren IV. kapituluaren daude jasota, eta eranskin horretan zuzeneko laguntza gisa emandako zenbatekoa zehazten da. Zenbateko osoa 73.000,00 eurokoa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen, eta, beraz, interesdunak gora jotzeko errekurtsua jarri ahalko du beronen aurka, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 21a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,  
RAÚL PÉREZ IRACHETA.

2024ko otsailaren 1a, osteguna

## ERANSKINA

LANDARE-KONTSERBEN ENPRESENTZAKO LAGUNTZEN PROGRAMAREN KONTURA  
EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Espediente-zk.	Sozietate-izena	IFK/NAN	Laguntza (euro)
1	00001-VEG2023-61	Artandi IV, SL	B9562235	25.000,00
2	00002-VEG2023-61	Jakion, SL	B20570230	7.000,00
3	00003-VEG2023-61	Zubelzu Piparrak, SL	B75079608	22.000,00
4	00005-VEG2023-61	Conservas Ti-Ta, SL	B75239723	2.000,00
5	00006-VEG2023-61	María Begoña Villar Landeta	***5886**	1.000,00
6	00007-VEG2023-61	Haizea Bengoetxea Andikoetxea	***7207**	2.000,00
7	00008-VEG2023-61	Ibarrako Piperra, S. Coop.	F20532297	3.000,00
8	00009-VEG2023-61	Itsaslu,r SL	B95880225	8.000,00
9	00010-VEG2023-61	Agiña Piperrak, SL	B20775409	1.000,00
10	00012-VEG2023-61	Ana de la Maza Llaguno	***9088**	1.000,00
11	00013-VEG2023-61	Alazne Intxauspe Elola-Jon Bereziartua Txinturreta SZ	J95777553	1.000,00